

BOOKTEGI

# gaueko txanda

NEREA IBARZABAL

E  
l  
k  
a  
r  
r  
I  
r  
a  
k  
u  
r  
r  
i  
z



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

NEREA IBARZABAL

# gaueko txanda

E  
l  
k  
a  
r  
r  
I r a k u r r i z

Giza harremanetarako arduradunak aldaketaren berri eman dionean, Billek buruarekin baietz egin dio. Ez du bere betiko "bababai" azeleratua ahoskatu, guztiz ados dagoela adierazi nahi duenetan darabilena.

"Ulertzen duzu, ezta, Bill? Zentrala beste enpresa baten eskuetan dago orain. Huste lanetarako makina garestiak ekarriko dituzte, eta hauen segurtasuna ezinbestekoa da. Zerorrek ere eskertuko duzu konpainia apur bat".

Arduradunak esmeralda tantaz jositako urrezko gurutzetxo bat darama lepotik zintzilik, Billi plastikozko edalontzia urez betetzen dion aldiro pendulu eran mugitzen dena. Irribarrerik erantzi gabe, eta hiru minuturen barruan, Billen egunerokoa eraldatuko duten bi neurri proposatu dizkio. Bata, gaueko txandak lankide berri batekin egitea; orain arte bera bakarrik egon izan da kabinan, zentral nuklear mututuaren gau-belak zaintzen. Tira, bakar bakarrik ez.

"Maxi buruz ere hitz egin behar dugu".

Max txakurrari erretiroa ematea izan da agindutako bigarren aldaketa. Hezitzaileen arabera, ez da komeni segurtasuneko animaliek hamabi urteen langa gaintzerik.

"Ordezko txakurra prest daukatenean esango digute. Azken mimoak eman beharko dizkiozu!".

Eta irribarre ezpaintsu bat eskaini dio berriro.

Giza harremanetarako bulegoa enpresaren kolore korporatiboekin dekoratu berri dute. Hormak grisak, mahaiak eta aulkiak bezalaxe, baina tonu ilunxeagokoak hauek. Ziape koloreko butaka zurrun bat bazterrean, batek daki noiz esertzeko eta zer irakurtzeko. Kafe-kapsulen dorretxo urrekara bat. Zutikako lanpara eta apalak, hori fluoreszenteak. Altzari merkeak eta ezeren pisurik eutsiko ez luketenak, Billen iritziz. Enpresarentzat lanean daramatzan hogeita hamar urteetan ia ez du bulegorik zapaldu. Bere kasa ibiltzera ohitu da, ondo koordinatutako talde ikusezin baten parte izatera. Bere gauak, bere hausnarrak, bere kabina. Goizeko txandara datorren lankidearekin hitz aspertu bat, lekukoa pasatu, eta etxera. Baina hori amaitu da. Edalontziko ura tragoan edanda, pauso baldarrean irten da bulegotik, oinak moketa grisaren kontra arrastatuz.

Iluntzeko eguzkiak Billen autoa argiz bete du lanerako bidean. Emazteak prestatu dion ogitartekoa kopilotuaren eserlekuan laga du, ohi bezala, herriko ile-apaindegiko logoa daraman plastikozko poltsan sartuta; adats kizkur bat eta guraizeak, eta guraizeen bi zuloek Olgaren “o” eta “a” letrak osatzen dituzte. Alkoholik gabeko zerbeza lata bat ere sartu dio poltsan. Besteetan baino goizago iritsiko da gaur, hamar gutxi dira. Gehienetan gaueko hamarretako irrati-buletina aparkalekutik bertatik entzuten du, kabinan sartu orduko, baina gaur irratia itzali du kotxea arrankatzerakoan.

Bizkor ari da gidatzen, bihozkada desatsegin bati iheska bezala. Intermitenteari eman dio eskuinetara sartzeko. Ibaiaren gainetik doan errepide nasaian aurrera egin ahala, hortxe agertu zaio gaur ere, noizbait bere eskualdea estrategikotzat jota altxatu zuten zentral nuklearra, hormigoizko kubo erraldoi bat ibaiaren meandro arbolatsuaren erdian. Tximinia altu bat dauka aldamenean, eta instalazio elektriko zabala, aspaldi txitxarren izurri batek bezain burrunba aztoragarria egiten zuena. Orain benetako txitxarrak entzuten dira ustekabeko lekuetan hazitako belar horituen artetik. Udako izpiek itzal luze bat oparitu diote eraikinari, aparkalekua osorik estali duena.

Billi aurpegiera larritu zaio aparkalekuko bere ohiko tokia BMW zuri batek hartu duela ikusi duenean. Maniobra trakets samar batzuk eginda, kotxe zuriagandik hiru tokira sartu du bere Focusa.

Motorra itzali arren, ez da kolpetik irten. Hamarrak bost gutxi. Guanteran zerbaiten bila dabilenaren plantak egin ditu, paper artean azterka. Hor daude bere lotarako pilulak, buruko minarentzakoak, eztizko karamelu batzuk eta telefono zenbakien agenda zahar bat.

BMWko pilotuaren atea zabalik dago. Barruan mutil gazte bat ikusi du, ezkerreko hanka kanpoan duela, burua mugikorretik altxatu gabe. Ez du zirkinik egin Focusaren iritsierarekin. Hiru minutu hamarretarako. Hasperen egin, begiak itxi, eta autotik irten da Bill. Ile-apaindegiko poltsa eskuan duela inguratu zaio, tentuz.

“Gabon! Zeu al zara berria? Bill naiz”.

Mutil gazteak burua altxatu du, eta zutitu egin da, eskuin eskua luzatuta. Biek daramate enpresako uniforme beltz berbera, gazteak zenbait taila txikiagoa.

“Ni Raul. Bill esan duzu?”

Bai, tira... -irribarre harroxkoarekin, bizitzan sarrien eman duen azalpena emateko prestatu da- Alberto dut izena, baina gaztetan ezizen hauxe jarri zidaten lagunek zentrala zaintzen hasi nintzenean. Txernobyngoagatik.

Billek barre egin du, ez, ordea, Raulek. Bekain bat altxatu du hark. Urteak atzeraka zenbatu ditu Billek bere bostean, estu. Hain gaztea ote da, ba, Raul hau? Edo hain zaharra bera?

“Txerno-Bill. Ukrainan lehertu zen zentrala. Aspaldiko kontuak dira”, azaldu dio.

“Bai. Ulertu dut”.

Raulek begi urdinak ditu, eta begi urdinak dituztela badakitenek bezala begiratzen dio parekoari. Hortzak okerrak, eta ilea larru-arras moztuta. Billek sabelean tirakada moduko bat sentitu du.

“Inguruak erakutsiko dizkizut”.

Plastikozko poltsa eskuz aldatuta, zentralerantz abiatu da Bill, Rauli zuzenean begiratzera ausartu ez, eta haren pauso hotsen zain. BMWtik motxila txiki bat hartu ondoren segitu dio gazteak aparkalekuko marra zurien gainetik.

Eraikinera hurbildu ahala, Bill zentrala inguratzen duen hesiari begira hasi da hizketan. Ez du Raulen eta beraren arteko distantzia mozteko ahaleginik egin; hankek aurrera egiteko agintzen diote.

“Hamazazpi kamera dauzkagu guztira. Azpiegituraren kanpoaldeko eta sarrera nagusiko angelu ia denak harrapatzen dituzte. Lehen hemezortzi ziren, baina bat izorratuta dago. Agian jabe aldaketaren kontu honekin ganora apur bat berreskuratuko du gure enpresak ere”.

Gazteak “ados” erantzun du. Hil-hurren den eguzki gorriak haren besoetako giharrak nabarmentzen ditu uniformearen azpitik. Aurpegirik aldatu gabe behatzen dio zentralari, inoiz ezerk, ezein handitasunek, harritu izan ez balu legez. Iphone-a atera du poltsikotik. Zerbait idatzi, eta gorde egin du berriro. Bill begira daukala ikusi duenean, irribarre erdi bat egin dio, eta eskuarekin aurreranzko keinu bat gero, azalpen gehiago entzuteko prest dagoela adierazteko. Baina isilik joan dira zati batean, hesiari jarraika, ibaiak bere besoarekin ondo helduta daukan lur-muturrean zehar.

“Hor beste kamera bat, eta hor beste bat”.

“Ados”.

“Han bestea, poste hartan, ikusten? Huraxe da ez dabilena”.

“Ados”.

“Ganorabakoak, mila aldiz esango nien honezkero. Beste zereginik ez, eta...”.

“Sustorik izan al duzu inoiz?”.

Bill zurbildu egin da. Ez zuen halako galderarik hain goizik espero. Hori ez da edozelako galdera gaueko segurtasun zaindari batentzat. Gaztea izan behar da, gero, eta buruarina. Esku ahurra umeltzen ari zaiola igarri du plastikozko poltsarekin kontaktuan.

“Txikikeriak. Porrero pare bat, eta larrutarako leku bila dabiltzan bikoteak, besterik ez. Hau itxi zutenetik kontua asko baretuta dago”.

Bihotza paparretik irtetear dauka; larrua eten, alkandorara jositako enpresaren logoa azpialdetik zartatu eta mendira alde egingo dio. Raulek ez du galdezka segitu. Haren mugikorraren tekla-hotsak bete du isilunea, eta haren pantailaren argiak ilunabarra. Joan da eguzkia arbola osterara.

Maxek beretzako propio eraikitako partzela hesitua dauka sarrera nagusitik gertu, eta erraz kabitzen dira bera eta bere txabola, benetako teilatu eta guzti, eta bere ur eta pentsu poteak, denak neurri handikoak, bera bezalakoxeak. Zaunkaka hasi da bi gizonen pausoak entzundakoan, artzain-txakur alemanaren belarri zorrotzak tente. Billek atea guztiz zabaldu orduko irten da Max zirrikitutik, bizi-bizi. Billen hanken inguruan buelta pare bat eman, eta Raulengana jo du segituan, haizeak duela ordu erdi ekarri dion usain ezezagunaren sorburura. Praketan usnaka hasi zaio, buztan lodia ezker-eskuin mugituz. Mutila zurrun dago, eta Billek barre egin du bere baitarako. Maxek praketatik zapatetara jaitsi du mutur iluna. Lokarriak, zolak, galtzerdiak, usnatu eta usnatu. Tristurazko intziri txiki bat eginda, gaztearengandik urrundu da, txakur handien mokor kulunkariarekin. Bi zaindariak gaua pasatuko duten kabinaren parean etzan da gero, mingaina kanpoan, hesi zuri-gorriaren alboan.

Zentrala eraitsiko duen enpresaren materialez josita dago sarrerako eremua, dena kutxa handitan sartuta. KASKOAK - MASKARAK jartzen du batean, letra gorriz. BOTAK haragoko batean. Langileentzako beste bi barrakoi ekarri dituzte. Bestelako kontainer berde pisutsuago batzuk ere bai ilaran, zenbakituta: 03879, 03857, 03865.

“Zer egin behar dute?”, galdetu du Raulek, kontainer artera gerturatuta.

“Lan zikina”, bota dio Billek. Bere kabinan sartu nahi luke oraintxe, bere irratia piztu, Maxi lepoa igurtzi, eta bakarrik egon. Baina delako Raul hori trasteen artean galdu da.

“Ez daukagu ezer ukitzeko baimenik”, gogorarazi dio Billek kabina ondotik.

“Trankil!”, urrutitik egin dio oihu gazteak.

Billek hasperen egin du, eta haren atzetik joan da, ogitartekoaren poltsa eskuan oraindik. Txakurrak ondotik segitu dio. “Nork fitxatu ote du morroi hau?”, pentsatu du. “Auskalo zein zentro komertzialetan formatuko zuten”.

Ez ditu leku horietako segurtasun langileak maite, andreei poltsak zabaltzeko eskatzen dieten horiek. Hasiberritan, supermerkatu bat zaintzera agindu zuten urtebetez, eta izugarri eskertu zuen berak eskatu beharrik gabe zentral honetara mugitu izana, amak eskuak burura eraman bazituen ere; semearen uniforme baldin batean beratzen uzten zuen hasierako urteetan, garbigailuan beste senideen arropekin nahastu aurretik. “Desgraziaren bat bazetorrek, Alberto, lehenengoa izango haiz hiltzen!”, esaten zion. Baina ama lehenago hil zen azkenean, eta emaztearekin bizitzen jarri zenetik garbigailuak takada bakarrean garbitzen ditu jantzi guztiak, lanekoak zein kalekoak.

ESKULARRUAK jartzen duen kutxaren atzean aurkitu du Raul, Iphoneko linternaren argitan inguruak miatzen.

“Nuklearren mundua interesatzen zaizu, ala?”.

Gazteak barre egin du, eta linterna itzali.

“Zer zaindu behar dudan jakin nahi dut”.

Ilunetan gihartsuagoa dirudi; helduagoa, begi urdinik gabe.

“Neuk baneki!”, hasi da Bill. “Dena aldatu da. Bihartik aurrera sartuko diren langile guztiak berriak dira, makinak ere bai. Hau dena hustuko dute. Erabilitako erregaiaren piszinarekin hasiko dira, eta errektorearekin bukatu, auskalo noiz. Erretiroak hementxe harrapatuko nau ni”.

“Ikusi al dituzu inoiz? Piszina, eta gauza horiek”.



“Zentrala martxan zegoenean barruko instalazioen zaintzaz ere arduratzen ginen. Orain perimetroaz baino ez. Gainerakoa jabeek monitorizatzen dute”.

Raul kubo formako eraikin handiari begira geratu da. Gero mugikorra atera du berriro, eta beste zerbait idatzi, Billi lepoa emanda.

“Erreaktorea hemen barruan dago”, azaldu du Billek, kubo erraldoia seinalatuz. “Hau zatitan egiteko kapaz dena, artista galanta”.

Jakineko gauzak esaten ari den arren, gehiegi hitz egiten ari dela sentitu du, Raulen isiluneek mingainetik tira eta tira egingo baliote bezala. Kito.

“Eta nolakoa da pizina?”, galdetu dio mutilak.

“Urdina”.

Eta kabinarantz abiatu da, Max zaharra ondoan hartuta.

“Zer da hutsunea? Gaurko galderak, entzule maiteok, ez du erantzun errazik. Hutsunea. Sentsazio bat ote da? Leku bat? Edalontzi huts bat badut, esne pittin bat bota, eta jada ez da hutsik egongo. Baina hutsune existentziala? Ba ote dago hau betetzerik? Ez dakit. Nik dakidana da mezu hau jaso dugunean barruak bete zaizkigula.

‘Gabon, Maria eta gainerakoak. Niretzat hutsunea zera da, zuen programa ezagutu aurretik sentitzen nuena. Besarkada bat Itsasargiko naufrago denentzat’.

Besarkada bat bueltan. Dakizuenez, gure programan hitz baten inguruko hari-mutur guztiei tiraka aritzen gara. Horretarako hainbat gonbidatu elkarrizketatuko ditugu, eta zuen mezuei ere tartea egingo diegu. Datozen orduetako hutsuneak elkarrekin beteko ditugu Itsasargian, ordu bietatik aurrera. Ongi etorri.

Nobody help me, I’m not cold, I’m empty. Somebody heal me, hold me...”

Ordu bien seinaleak jo duenean poltsa zabaldu, eta aluminio paper askorekin bildutako ogitartekoa atera du Billek. Urdaiazpiko tortilla. Lehenengo ogi puntta Maxi eskaini dio, ohi bezala. Txakurrak glauk irentsi du lurrekoa, eta gehiagoren zain geratu da, begiak argi. Garagardo lata zabaltzerakoan, Raul izan da begira geratu zaiona.

“Ez dauka alkoholik”.

Tarte luzea daramate isilik. Billek motzean azaldu dio ordenagailuen funtzionamendua. Nola ikusi kamera bakoitzeko irudiak, nola mugitu bisoreak. Garraioentzako hesia zein botoiri emanda altxatu. Erreminta-kaxa non dagoen, Iphone-arena baino linterna profesionalago bat erabili nahi izango balu noizbait. Eta gutxi gehiago. “Eseri eta aspertu”, esan dio Billek.

Mutilak bi tupper atera ditu motxila txikitik. Batean poltsako entsalada dakar, hutsa, olioztatu gabea. Oilasko bularrak plantxan, bestean. Amaitzeko, proteina askoko edateko jogurta. Mugikorrari begira jan du, bideo motzak bata bestearen atzetik ikusten, Billek trabeska zelatatu dituenak ogitartekoari hozka egin ahala. Neska ilegorri bat bikinian, crossfiteko altxaldiak, asteko golik onenen aukeraketa, azenario pastelaren errezeta azkarra, Maserati baten barrualdea. Algoritmoak agindutako ordena horretantxe. Pantailaren goialdean hainbat mezu sartu zaizkio errenkadan une batez, Car delako batenak. “Amaitu da, orduan?”, irakurri ahal izan du Billek haietako batean. Gaztearen ezker eskuko atzamar erakusleak bideoak arrastatzen dituen eran arrastatu ditu goraka mezuok ere, irakurri nahi ez diren gauzen laino horretan behin behinean gordetzeko, baina begitartea ilundu zaio, eta hasperen egin du sudurretik, ahoa oilaskoz eta errukulaz beteta.

“Saskibaloia gustatzen?”, bota dio Billek, ustekabeko erruki sentipen batek eraginda.

“Bai. Umetan ibilitakoa naiz”.

“Gaur Celticsek jokutzen du Orlando Magic-en kontra”.

Billek pantaila mugitu du, Raulek ere ikusteko modua izan dezan. Laster agertu dira gizon erraldoi besaluzeak irudietan, orain ezkerrera eta orain eskumara, denak aldran, baloia eta saskiak eta jolas-pista bera ere txiki geratzen zaizkiela, baina arropak nasai, hala ere.

Partida ikustera eseri aurretik, makinako kafe bat prestatu du. Botoiari eman eta kapsula zulatzen entzun da, modu ia agonikoan.

“Neuri ere hutsa atera, mesedez”, eskatu dio Raulek.

“Noski”.

Ordu bi t’erdiak. 8:30 PM Bostongo Celticsen estadioan. Bill baretu egin da, arindu. Agian bere kabina zahar hau ez da berak uste adina aldatuko datozen urteetan. “Bakardadeak zekendu egin hau, Bill”, ebatzi du kafe usainean.

Max lo dago lurrean, udako gau epelaren soseguan; lantzean behin hasperen egiten du, aspaldiko egunen penatan bezala.

Kanpoan zuhaitzen dardara eta ur-presaren burrunba, besterik ez da entzuten. Kubo handia isilik, tximinia arnasari eusten. Hormigoia, hainbeste urtetan ateratako zalapartaz lotsatuta, erreondoko paisaia gautarraren parte izan nahian orain. Haltza naiz, ahatekumea naiz, amurraina naiz, betidanik egon naiz hemen.

Zaindarien kabinako leihotik irteten den argi zuriak sits pare bat erakarri du. Haien ilargi-begiek bi gizon bereizi dituzte pantaila baten aurrean, aurpegiak argi urdinetan bustita, zaharrena patxadatsu, eta gaztea beherantz begira, beste gailu argitsu bat atzamar puntekin ukitzen, zortedunak eurek, izpien eta tximisten jabeak, beti distiraren alde berean, zabaldu leihoa, madarikatuok.

“Lurtarrok ulertzeko moduan azaldu beharko diguzu.

Saiatuko naiz.

Hutsune erraldoi baten erdian bizi al gara?

Bai eta ez. Hutsune kosmikoaz ari garenean esan nahi duguna da unibertsoa, hein handi batean, hutsik dagoela, metro kubikoko atomo bat baino gutxiagorekin, batz bestea. Baina bizitza planetarioz eta galaktikoz betetako espazio bat ere bada, eta horrelako gune batean bizi gara gu.

Eta nola eragiten digu hutsune horrek?

Beno, teoria baten arabera, hutsune horrexek desegingo du sare kosmiko osoa. Irentsi egingo gaituela, alegia.

Entzuleak izutuko dituzu, Silvia.

Milaka milioi urte beharko ditu, ez kezkatu.

Eskerrak.

Unibertsoaren zatirik handiena energia ilunez osatuta dago. Zientziak kontzeptu hau asmatu zuen oraindik azalpenik ez daukan fenomeno bat ulertu ahal izateko: kosmosaren hedapen azeleratua zerk eragiten duen.

Energia ilunak eragiten du?

Hori uste dugu. Eta ikerketa batek dioenez, baliteke energia ilun honen sortzailea hutsunea bera izatea. Materiak materia erakartzen duen heinean, bitarteetako hutsuneak hazten eta hazten ari dira.

Beldurgarria.

Niri ederra iruditzen zait.

Horrexegatik zara zu astronomoa, eta ni kazetaria.”

Hirugarren kameraren planoan mugimendua sumatu du Billek. Kotxe baten argiak dira, aparkalekura sartzen. Ibiza gorri bat. Ez du sekula hemen ikusi.

“Nor kristo ote da?”, aulkitik altxatu da, urduri. Pantailako irudia handitu du.

“Trankil. Neu joango naiz”, Raulek hanka bat kabinatik kanpo dauka ohartzeko.

“Itxaron!”.

Gazteak lasaitzeko keinu bat egin dio eskuarekin, begiak zabal-zabalik. “Oraintxe nator”. Bill zer egin ez dakiela geratu da. Denbora da orduotan ez dela kotxerik etortzen. Maxek, belarriak zut eta sena zoli, mutilari jarraitu dio, baina gelditu egin da hesiaren parera heldutakoan. Ez du zaunkarik egin.

Billek CAM 3 jartzen duen pantailatik jarraitu ditu autoaren mugimenduak. Bere Focusaren eta Raulen BMWaren artean aparkatu du Ibizak. Argiak piztuta dauzkanez, ezin du gidariaren aurpegirik bereizi.

Raulen silueta arteza seigarren kameratik bosgarrenera, bosgarrenetik laugarrenera, eta laugarrenetik hirugarrenera igaro da, patxadatsu, autoaren plano berean sartu den arte. Orduantxe itzali dira aurreko foku biak. Pilotuaren atea zabaldu, eta neska bat irten da bertatik, udako soineko beltz bat soinean, eta ilea motots estu batean bilduta. Muturtuta dator. Raulek besotik heldu dio, eta zerbait esaten hasi zaio, neskak oso ondo hartu ez duena itxura batean, besoa keinu zabar batekin askatu baitu. Ahoa asko zabalduz hasi zaio hizketan, bekainak goratuta. Eskuineko atzamar erakuslearekin Raulen paparra kolpatu du, eta gero autoa seinalatu du, eta gero lurra, eta gero bere paparra, hiru biderrez, eta gero Raulena

berriro. Atzamar erakuslea gorde, eta esku zabalarekin atzerantz sakatu dio. Orain negarretan lehertu da, besoak zintzilik, eskuak geldirik. Raulek besarkatu egin du, eta kotxerantz eraman, astiro. Pilotuaren eta kopilotuaren eserlekuetan eseri dira, eta ateak itxi dituzte. Neskak negarrez segitzen du. Itzal egitekoa jaitsi, ispiluan begipeak garbitu, eta igo egin du berriz. Raul ondotik dabilkio hizketan, bi eskuak poliki mugitzen dituela, esku-ahurrak gorantz. Buruarekin ezetz dio besteak, ezkerreko ukondoa leihoan pausatuta, ukabila kokospean. Raulek besoarekin inguratu du, eta musu eman dio buruan. Neskaren sorbaldek zotinka ari dela diote. Mutilak ezker-eskuin kulunkatzen du haren negarra; txalupa txiki bat kotxearen barruan. Horrela eman dute minutu erdi. Orain txalupa gelditu egin da, urak loditu. Neskaren ahoa mutilaren ahoaren bila hasi da, lehen atzamarrez eta azkazalez zulatu nahi izan duen paparrean gora eta gora ezpaineekin. Raul geldirik dago, harrizko, bestearen burua erreguka eta narrasti dabilkion bitartean. Aparkalekuko kamerari begiratu dio.

Bill zutunik dago oraindik, bekozko ilunez, pantailari begira. Topera handitu du irudia, zoom-ari sakatuta. Ibizaren barrualdea haragiz, ilez eta lurrunez bete da. Hasieran beldurrez nahasi zaizkion tripetan harridura zabaldu zaio pixkanaka; haserrea, ondoren. Egonezina orain. Gerrikoa askatu, eta kabinako kortinak itxi ditu, zazpigarren kamerak parez pare graba ez dezan.

“Like a lonely tree in an empty field, full of unneeded things, waiting for a real sign to reach paradise...”

‘Gabon, naufragook. Ez al zaizue iruditzen hutsik sentitzen den jende asko dagoela? Zer dela eta? Guk ez dugu gerraterik edo goseterik igaro. Bizi garen garaia ona da, konektatuta gaude, baliabide pila bat dauzkagu, eta hala ere, jende mordo bat hutsik sentitzen da. Ez al da arraroa? Txema naiz, Aragoitik. Muxu bana’.

Watching the seasons pass, all of these years, now alone...

‘Kaixo, gabon denoi. Zer gertatzen da asko gustatzen zitzaizun zerbaitek jada betetzen ez zaituenean? Nik lehen idatzi egiten nuen, eta zoriontsu egiten ninduen, baina dagoeneko ez. Utzi egin dut. Jendeak ez du ulertzen, baina ni hobeto nago. Zuei pasatu al zaizue halakorik? Goraintziak Errioxatik, Inma naiz’.

You’ve done it again, breaking your happy home, like brand new toy in your hand...”.

Ibizaren argiak piztu dira berriro. Raul autotik urrundu da, alkandorako botoiak lotu ahala, bururik atzerantz biratu gabe. Hirugarren kameratik laugarrenera pasatzen ikusi du Billek. Plano osoa zeharkatu du burumakur, atzamarrekin ilea txukuntzen. Badator. Bosgarren kameraren ikus-eremuan sartu da. Mantso botatzen du pausoa. Billek Facebooka zabaldu du ordenagailuko pantailan, begiak norantz bota edukitzeko Rauli zer esan pentsatzen duen bitartean. Gaztearen irudia bosgarren planotik atera da. Seigarren kamera hautatu du Billek. Ez da iritsi oraindik. Astiro zer dator, ba. Bosgarrenean begiratu du berriro. Hor ez da ageri jada. Zazpigarrenera salto. Ezta ere. Max bakarrik dago hor, hesiaren ondoan, urrunera begira.

Eskuek dar-dar egin diote. Berriro handitu ditu sarrerako kameraren irudiak, banan-banan, 3-4-5-6-7. Ezer ez. Atzamarren kontrola ia erabat galduta, zentraleko ikuspegi panoramikoak aukeratu du, eta hemezortzi laukitxo agertu zaizkio pantailan, bere begi guztiak. Haizeak mugiarazitako landareak, intsektuz jositako farola bakartiak, hesia; perimetroan ez da besterik ageri. "Bakarrik hago", esaten diote begiek, denek, batek izan ezik, CAM 16-ak, honek no signal diotso laukitxo beltzaren gainean, izan daitezkeen eta ez daitezkeen gauza guztiak erakutsiz.

Bill arnasestuka irten da kabinatik.

Hutsunearen adierarik ohikoena absentziarena izango da ziur asko. Norbaitek utzitako hutsunea. Gure hurrengo gonbidatuak bere okelatan bizi du. Lagun bat galdu zuen. Galdu, eta inoiz aurkitu ez. Ongi etorri, Julia.

Mila esker, Maria.

Konta iezaguzu, nor zen Quim?

Ba... neure lagun min bat. Nerabezaroan ezagutu genuen elkar, biok bolada txar bat pasatzen ari ginenean. Asko lagundu genion elkarri.

Zein zentzutan?

Beno, elkarri entzunez. Quimek ez zuen harreman onik bere gurasoekin. Etxetik ospa egiten zuen sarri, eta nire etxe ondoko parkean ezkututzen zen halakoetan. Halaxe ezagutu nuen,

lagunekin parkean nembilela. Besteek barre egin zioten, baina nik... ez dakit, banekien elkar ulertuko genuela.

Zentralaren atzealdera iritsi da Bill, korrika, Maxen erpeen hotsa jarraika duela. Ahots-kordak korapilatuta dauzka, eta oihu bakoitzak eztarrian ten egiten dio.

“Raul! Raul!”.

Ez dator erantzunik. Ur-presaren burrunba geroz eta ozenagoa da hamaseigarren kamerara gerturatu ahala. Billek burua lanbrotzen sumatu du, hona inguratzen den aldiro legez.

Kameraren aurrera iritsitakoan ur-jauzi erraldoiaren jarioari begira geratu da; nola liteke ura hain pisutsu izan, hain zaratatsu, garunak barrutik lehertzeko beste. Ez zen nolanhikoa zentral honen egarria, eta ibaiari erakutsi zioten nola ase, hormigoizko kuboaren zainak nondik zeharkatu, zer hoztu eta noiz lurrundu, txintik esan gabe. Eta erakutsi zioten, halaber, nola itzuli bere ibilgura osterera ere, zentralaren tripetan hainbeste bazter eta hainbeste jende buzodun ikusi ondoren. Eta itzulera hartako beroaldiek kalte egiten omen zieten urtegiko planktonei eta arrainei eta nahi beste gauzari, hori aurpegiratzen zioten Billi zentralaren kontra zeuden bere ezagunek, ekologista potrozorri haiei ikasitako hitzekin. Talde haiek beldurra barruraino sartu zioten euren ekintza gautarrekin, edonoiz ager zitezkeelako, rotaflexak eskuetan, zentraleko hesiak moztera, edo haien buruak lurrera kateatu eta gose-grebaren bat hastera. Gogorra da gaueko segurtasuna, eta gogorragoa zen orduan. Zentralari eraso egin nahi zion edozeinek guztien bizitza arriskuan jar zezakeen.

“Raul!”.

Arrastorik ez. Hamaseigarren kamerari begiratu dio, izuak gain hartuta, gau hartan bezalaxe.

“Uda hartan atera nuen gidabaimena, eta nire aitaren kotxe zaharrea hara eta hona ibiltzen ginen Quim eta biok, belarra erretzen eta musika entzuten. Gure ondoko herrian bada zentral nuklear bat, eta haren inguruetara joatea otu zitzaigun, errekaen ondora. Luze hitz egin genuen bizitzaz, gogoan dut hori.

Zer esaten zizun Quimek?

Ba... galderak egiten zizkidan, batez ere. Nire etorkizuneko asmoez eta. Non nahiko nukeen bizi. Nik Italian esan nion, ez dakit zergatik. Bera ez zen kapaz izan herrialde bat aukeratzeko. Askotan birpasatu dut gau hartako elkarrizketa, eta gerora ohartu naiz bazela halako tristura bat berarengan, unean bertan ikusi ez nuena. Haize apur bat hartu nahi zuela esan zidan, eta kotxetik irten zen. Ni... ez dakit, loak hartu ninduen, eta ordubetera edo esnatu nintzen.

Eta ez zen itzuli.

Ez zen itzuli, ez.”

Zentralaren barrualdera sartzerakoan, Max kanpoan uztekotan egon da, baina ez da ausartu. Atea kolpetik itxi da haien atzean, haize bolada batek putz eginda.

Larrialdietako argi horixkek justuan argitzen dituzte sarrera eta lurreko mosaiko handia: atomoaren sinbolo distiratsu bat esku ahur handi baten barruan. Billek gerrikoan daraman linterna piztu du, eta ezker-eskuin mugitu, itzalen baten bila. Eskaileren ondoko bulegoko kristalean islatu da bere izpia. Behin baino ez da sartu gela horretara, baina ez dauka ahazteko amapolen koadro bat zeukatela hormatik zintzilik, haretxi begira egon baitzen negarrari eutsi bitartean. Segurtasuneko enpresaren eta zentralaren jabeen arteko urgentziazko batzarrean izan zen. Hantxe erakutsi zioten lehenengoz eta azkenengoz hamaseigarren kamerak harrapatutakoa, ordenagailu txiki batean.

CAM 16: Mutil gazte ihar bat ageri da, zigarroa eskutan, presari begira. Segundo gutxira, atzealdetik agertu da Bill, hankak dardarka, pistola eskuetan, mutilari zerbait oihukatzen. Gaztea, izututa, hesian gora igo da, orkatza bezain arin. Ohartzerako beste aldean dago, presaren ertz estuan zehar korrika. Billek walkie-talkiea atera eta laguntza eskatu orduko, mutilak estropezu egin du, eta ur-jauziak mutila jan.

Hortik aurrera amapolak baino ez ditu gogoan, olio margoturiko zazpi lore gorri zelai berde batean, eta bere inguruan nagusien ahotsen marmarra, bideoa ezabatuko dugu, poliziaren hipotesi nagusia suizidioarena da, koadroko amapola bakoitzak zortzi hazi beltz dauzka bere barruan, kamera desaktibatuko dugu eta matxuratu egin dela esan, hauxe da falta zitzaiguna lizentzia behin betirako galtzeko, amapolen zurtoinetako iletxoak ere ikusten dira, trazu fin-finez, ados orduan, gure kontu, zu trankil, Bill, har itzazu egun batzuk zeuretzat.



Billek eta Maxek arrapaladan igo dituzte eskailerak, eta ondoko eraikinera igaro dira korridore luze bat zeharkatuta, Bill larri, esku bat paparrean duela, eta txakurra ere mingaina aterata, noizbehinka gizonari behetik gora begiratzuz, zein arrisku sumatzen ote duen asmatu ezinik.

Sarrera plastikoz estalita daukan tunel bat agertu zaie parez pare. "Egonaldi laburreko gunea. Irradiatze eta kutsatze arriskua", dio kartel batek, beste hamaika sinbolo eta harridura ikurren artean. Bakar bati jaramonik egin gabe segitu dute aurrera gizonak eta txakurrak, linternaren izpi urduriak eremua zatika argizatzen duela.

"Nola definituko zenuke utzi zizun hutsunea?"

Uf. Ez dakit. Gau bat bezalakoxea".

Billek debeku seinaledun ate bat zabaldu du bultzada batekin, eta hortxe eten dute korrikaldia. Gela honetan makinen soinua entzuten da oraindik, eraikinaren gainerako espazioetan ez bezala, baita erradioaktibitate neurgailu baten hotsa ere. Uraren baretasunari begira, arnasa berreskuratzen saiatu da Bill.

Piszipina erraldoi bat daukate parez pare. Barruan, hamar bat metroko sakoneran eta burdinazko sare baten azpian, borobilean ordenatutako kutxa blindatuak, eta hauen barruan zentrala martxan zegoenean erabilitako erregai barrak, milaka gradutara. Munduaren beste alderaino iristen den tunel beltz bat dirudi.

Bill eta Max piszipinaren gaineko estruktura horira igo dira, eta goitik begiratu diote euren islari, ispilu bat bezain gardena den ur-azalean. Gizon zaharra eta txakur zaharra. Ura etengabeko sartu irtenean dabil tenperaturaren maila orekatu eta erradiazioa mugatzeko. Panela zaindu du Billek: Airearen tenperatura: 21 gradu. Uraren tenperatura: 32 gradu. Bekokiko izerdia lehortu du. Dena ondo dago.

Eseri egin da, hankak piszipinaren gainean zintzilik eta aurpegia eskuen artean gordeta. Garezurra sentitu du hatz-mamien azpian, geroz eta presenteago azal maskalduaren ostean. Bekoki estua, kokots irtena. Egunen batean argia ikusiko dute beti ilunpetan egotera ohitu diren hezurrok, eta kafeak horitutako bere hortzak, ezker belauneko desgastea, eta umetan

ukondoa hautsi izanaren aztarna, horiexekin laburbilduko dute Billen bizitza bere birrinek. Oraingoan okelaz jantzita dago, erradiazioa bere zelulak arian-arian zulatzen hasi bada ere, eta zelula puska hauek beste zelula batzuk zulatuko badituzte ere, gaur gaurkoz zainez eta giharrez estalita dago, eta betazaleko odolaren gorritasuna ikus dezake begiak ixterakoan, geroz eta biziagoa den gorri bat, eskuko atzamarren bitartetik sartzen ari zaion argitasunagatik.

Begiak zabaltzerakoan, urpean itzal bat ikustea iruditu zaio, baina argitan desegin da berehala. Sakonetik irten den izpi zuri batek zentzumen denak estali dizkio, neurgailuaren krakada maiztuak ez entzuteraino, ateen gaineko argi gorriak eta paneleko tenperatura aldaketak ez ikusteraino, Max zaharraren asmoak ez usaintzeraino, estructuresatik salto egin eta zuzenean argiaren bila murgildu den unean, aurreko hankekin ur-azala zulatuta.

“Egunak argitzen duenean itzaltzen dira itsasargiak. Mila esker gaur gauean bidelagun izan zaituztegun naufrago guztioi. Guk hutsuneari hizketan segituko dugu, beste aldean norbait dagoela sinetsita. Bihar arte.

I’m drowning up my sorrows, there’s rules I’ll never follow, pretend there’s no tomorrow. I wish there was no tomorrow”.